



**Zumaia Udala**

2017KOFI0002-009-001  
BEHIN BETIKO ONESPENA.TESTU BATERATUA

**ZUMAIAKO UDALERRIKO BIDE PUBLIKO JAKINETAN IBILGAILUEN  
APARKAMENDUA ETA GUNE JAKIN BATZUEN ZIRKULAZIOAREN  
ETA ERABILERAREN ZENBAIT ALDERDI ARAUTZEKO ORDENANTZA  
LEHEN ALDAKETA**

**1ª MODIFICACIÓN DE LA  
ORDENANZA REGULADORA DEL APARCAMIENTO DE VEHÍCULOS Y DETERMINADOS  
ASPECTOS DE LA CIRCULACIÓN Y EL USO DE DETERMINADAS VÍAS URBANAS DE ZUMAIA.**

**BEHIN BETIKO DOKUMENTUA.**



**ZUMAIAKO UDALERRIKO BIDE PUBLIKO JAKINETAN IBILGAILUEN APARKAMENDUA ETA GUNE JAKIN BATZUEN ZIRKULAZIOAREN ETA ERABILERAREN ZENBAIT ALDERDI ARAUTZEKO ORDENANTZAREN LEHEN ALDAKETA**

**PRIMERA MODIFICACIÓN ORDENANZA REGULADORA DEL APARCAMIENTO DE VEHÍCULOS Y DETERMINADOS ASPECTOS DE LA CIRCULACIÓN Y EL USO DE DETERMINADAS VÍAS URBANAS DE ZUMAIA.**

**AURREKARIAK.**

Udalaren osoko bilkurak, 2017ko maiatzaren 25ean Zumaia udalerriko bide publiko jakinetan ibilgailuen aparkamendua eta gunea jakin batzuen zirkulazioaren eta erabileraren zenbait alderdi arautzeko Ordenantza behin betiko izaeraz onartzea erabaki zuen, akordioan honako xedapena erantsi zitzaion:

**2017KO XEDAPEN GEHIGARRIA**

- Arautze-aldia: ekainaren 15etik irailaren 15era (egunero).
- Hasierako arautzearen eremua (2017an probaldia): Zubitxikitik herriaren barrualdera doana. Hasiera batean 4 zonatan banatuko da. Errotazio handiko zona bat izango du (81 plaza) eta beste bat ordainpekoa (89 plaza, TAOrekin). Ardantzabideko zona urte osoan araututa egongo da. Larretxo zona berezia izango da (ikus erantsitako planoq).
- Egonaldi luzeko guneak (aldirietan): Estazioko industrialdea. Kirol-portuko aparkalekua. Loturak Txu-Txu trenarekin eta itsasontzi-zerbitzuarekin.
- Autokarabanentzako gunea: Sarauneko zati batean, kirol-portuan; gehienez bi egunez aparkatu eta kanpatu ahal izango da.
- Poligono ingurua (Alai, Basadi...) babesteko plana: zona horretarako hiru sarbideak erdi ixtea informatzaileen bitartez. Zona horretan bizi direnek

**ANTECEDENTES.**

El Pleno municipal en sesión de fecha 25 de mayo aprobó con carácter definitivo la Ordenanza reguladora del aparcamiento de vehículos y determinados aspectos de la circulación y el uso de determinadas vías urbanas de Zumaia. En el acuerdo se incorporó el siguiente anexo.

**DISPOSICION ADICIONAL**

- Periodo de regulación: del 15 de junio al 15 de septiembre (todos los días).
- Zona de regulación inicial (período de prueba 2017): la zona que comprende del puente Zubitxikia hacia el interior de Zumaia. Dividida inicialmente en 4 zonas diferentes. Contando con una zona de Alta Rotación (81 plazas) y otra de pago (89 plazas, OTA). Ardantzabide zona regulada durante todo el año. Larretxo zona especial (ver plano adjunto).
- Zonas de larga estancia (disuasorios): Polígono industrial de la Estación. Aparcamiento del puerto deportivo. Enlaces con tren Txu-Txu y servicio barco.
- Zona para autocaravanas: Parte del aparcamiento de Saraunea (puerto deportivo), limitado los días de estacionamiento y acampada a dos días.
- Plan de protección Polígono (Alai, Basadi...): semi-cerrar los tres accesos posibles a dicha zona mediante personas informadoras. Las personas residentes en esta zona dispondrán de su



dagokien egoiliar-txartela edukiko dute (doakoa) zona horretara sartu ahal izateko.

- Kontzientziatzeko kanpainak: zumaia guztiei zuzendutakoak, mugikortasun jasagarria eta segurua bultzatzeko eta ohitura osasungarriagoz gozatzeko (lehen fasea ezartzen den bitartean eta ondoren). Ibilgailuekiko oinezkoa lehenesteko bidean aurrera egiteko.

- Balorazio-bilerak: 2017ko arautze-aldia bukatu eta gero, bilera batzuk egingo dituzte udalbatza osatzen duten alderdi guztiek barrutik prozesua baloratzeko (teknikoki eta politikoki).

- Herritarrek parte hartzeko bilerak: Udalean ordezkariak duten alderdiek esperientzia baloratu zumaia guztiei dei egingo zaie lortutako emaitzak aurkezteko eta probaldia baloratzeko, horretarako behar diren saio guztiak eginda. Esperientzian oinarrituta, 2018rako plana landuko da, alderdi hauek erabakita: arautze-aldia, arautze-zonak (zenbat, bakoitzak zer kale hartzen dituen eta ordainpeko zonak jarri ala ez), autokarabanen gunean eta egoiliar-txartelak izan dezakeen kostua. Herritarren aldetik bildutakoaren gainean lanean jarraituko da, horretarako "Biharko Zumaia Boga" plan estrategikoan erabilitako lan-metodologiari jarraituta; Udalaren bitarteko teknikoak erabiliko dira, eta aztertuko da kanpoko enpresa baten zerbitzua kontratatze aukera.

- Lan-mahaia: teknikariek, ordezkari politikoez eta araututako zonetako herritarrek osatuko dute; azken horiek aukeratzeko zozketa egingo da parte hartzeko interesa agertzen dutenen artean.

2017ko Urriko Balorazio bilerak egin ziren

correspondiente tarjeta de residente (gratuita) para acceder a su zona de residencia.

- Campañas de concienciación: dirigidas a todos/as los/as zumaia-arras para fomentar una movilidad sostenible, segura, y disfrutar de hábitos más saludables (durante y después de la implantación de la primera fase). Avanzar en el camino de priorizar el peatón sobre el vehículo.

- Reuniones de valoración: tras terminar el periodo de regulación del 2017, reuniones para valorar internamente el proceso entre todos los partidos de la corporación municipal. (valoraciones técnico-políticas)

- Reuniones de participación ciudadana: después de haber valorado la experiencia entre los partidos representados en el ayuntamiento se convocará a todos/as los/las zumaia-arras para trasladar los resultados obtenidos y participar en cuantas jornadas hagan falta para valorar el periodo de prueba y elaborar, a partir de la experiencia, el plan del 2018, decidiendo sobre los puntos del mismo: periodo de regulación, zonas de regulación (cuántas, calles que comprenden y existencia o no de zonas de pago), zona de autocaravanas y posible coste de la tarjeta de residente. Se volverá a trabajar sobre lo recopilado en las reuniones ciudadanas. Todo esto siguiendo una metodología de trabajo similar a la utilizada en el plan estratégico "Biharko Zumaia Boga", utilizando los medios técnicos municipales y a su vez se valorará la posibilidad de contratar los servicios de una empresa externa.

- Mesa de trabajo: Estará compuesta por personal técnico, representantes políticos y por vecinos/as representantes de las zonas a regular, elegidos/as por sorteo entre las personas que muestren interés en participar en ella

En octubre de 2017 se realizaron las reuniones de Valoración y posteriormente



eta jarraian Ordenantzaren lehen aldaketa lantzeko mahai tekniko politikoa osatu zen. Mahai tekniko-politikoak Udal Gobernuak ostalari eta merkatarien ordezkari banarekin indartu zuen.

Lan guzti hauek kontuan izanda landu da dokumentu hau.

Bestetik badira Zumaia Udalerrian ez dauden hainbat baseri baina beraien irtenbide naturala Zumaia dena. Baseri hauetan erroldatutako biztanleak nahiz eta administratiboki zumaiaarrak ez diren Zumaia Udalerrian kokatzen diren hainbat zerbitzu (ambulatorio, kiroldegi, erosketak, e.a.) erabiltzen dituzte.

2017ko Udaldian herritar hauek ez zuten aukerarik izan egoiliar txartela lortzeko. Ordenantzaren lehen aldaketa honetan irteera naturala Zumaian duten baserriak txartela lortzeko aukera sartu da, horretarako Urola Kostako Udal Elkartearen zaborrak ordaintzen dituen baserrien zerrenda hartu da oinarritzat.

## **I. TITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK**

### **1. artikulua. Xedea**

Ordenantza hau Udalei trafiko eta zirkulazio gaietan legez ematen zaizkien eskumenen indarrez ematen da. Zumaia herri-guneko zirkulazioarekin eta horien erabilerarekin zerikusia duten alderdi batzuk arautzea du helburu, erabiltzaileen segurtasuna areagotzeko, ibilgailuen trafikoaren beharrezko arintasuna hobetzeko, eta aparkalekuen errotazio eta erabilera ona bermatzeko xedez.

Ordenantza honen xedea trafikoa antolatzen eta hobetzen laguntzea da. Horretarako, leku eta denbora mugak ezarriko dira zerbitzu partikular edo publikorako erabiltzen den 3.500 kg arteko edozein ibilgailu bide publikoko gune edo zonetan eta bertan jarritako lekuetan aparkatzeko.

se formó la mesa técnico política. La composición de la mesa técnico política fue reforzada por parte del Equipo de Gobierno con la inclusión de un representante de la hostelería y otro de los comerciantes.

Teniendo en cuenta todos estos trabajos se redacta el presente documento.

Por otro lado existen varios Caseríos y edificaciones que aún situándose fuera del término Municipal es Zumaia su salida natural. Los residentes en estos caseríos aunque administrativamente no son de Zumaia, son usuarios de los servicios enclavados en Zumaia (ambulatorio, polideportivo, etc.)

Durante el 2017 estos ciudadanos no tuvieron la posibilidad de lograr la viñeta de residente. En la redacción de esta primera modificación de la Ordenanza se ha contemplado este hecho, posibilitando la obtención de la viñeta a las edificaciones con la salida natural a Zumaia, teniendo como referencia el criterio establecido para la recogida de basuras de la Mancomunidad Urola Kosta.

## **TITULO I.- DISPOSICIONES GENERALES**

### **Artículo 1. Objeto**

La presente Ordenanza se dicta en virtud de las competencias legalmente atribuidas a los Ayuntamientos en materia de Tráfico y Circulación. Su objeto es regular determinados aspectos relacionados con la circulación y uso de determinadas vías urbanas de Zumaia con la finalidad de aumentar la seguridad de las personas usuarias, mejorar la necesaria fluidez del tráfico rodado y garantizar la rotación y el buen uso de los aparcamientos.

Tiene por objeto ayudar a ordenar y mejorar el tráfico, mediante la limitación espacial y temporal del estacionamiento de toda clase o categoría de vehículos hasta 3.500 Kg destinado al servicio particular o público en lugares o zonas de la vía pública y aparcamientos previstos en la misma.



Helburua da oreka handiagoa lortzea herriko hainbat zonatan aparkatzeko eskaintzaren eta eskariaren artean. Helburu hori lortzeko, Udalak (bere kabuz edo zerbitzu hori emateko kontratatutako enpresen laguntzarekin) bete ditzakeen mugatze, kontrol eta inbertsio jarduerak garatu dira.

## **II. TITULUA. APARKALEKUEN ERREGULAZIOA.**

### **2. artikulua. Zonak eta seinaleak**

Araubide berezi honen pean dauden zonak ordenantza honetako planoetan jasota daude. Zona horiek behar bezala seinaleztatu dira, eta seinale bertikalak (ahal den lekuetan) eta horizontalak jarri dira.

Udalbatzak ahalmena izango du zona arautuak eta horien izaera aldatzeko, baina aldez aurretik zona horietako bizilagunen parte-hartzea bermatuko duen prozedura beteko du.

### **3. artikulua. Ordainketa**

Araututako aparkaleku moduan behar bezala seinaleztatutako leku edo bide publikoan aparkatzen bada ibilgailua, ordaindu egin beharko da, erabiltzaileak hala eskatzen ez bada ere.

Aparkaldi arautuko gunean aparkatzeko, baimena eskuratu beharko da, horretarako ezarritako sistema erabilita eta dagokion tasa ordaindu ondoren. Baimen horrekin batera aparkatzeko txartel bat emango da, edo ez. Aparkatzeko baimenarekin batera aparkatzeko txartela ematen den kasuetan, ibilgailuaren aurreko kristalaren barnealdean ezarri beharko da txartela, kanpotik erraz irakurri ahal izateko moduan.

Constituye su objetivo la consecución de un mayor equilibrio entre la oferta y la demanda de estacionamiento en distintas zonas del municipio y para ello se desarrolla con actuaciones de limitación, control e inversión, destinadas al cumplimiento del citado fin, que puedan realizarse por el Ayuntamiento, bien directamente o con el auxilio de empresas contratadas para la prestación del servicio destinadas a dicho servicio.

## **TITULO II.- REGULACIÓN DE LOS APARCAMIENTOS.**

### **Artículo 2. Ámbitos y señalización**

Las zonas que quedarán sometidas a esta especial regulación se recogen en los planos que se adjuntan al presente documento. Dichas zonas estarán adecuadamente señalizadas en el lugar que ocupan, tanto verticalmente (cuando sea posible) como horizontalmente.

El pleno del Ayuntamiento podrá acordar la modificación de las zonas reguladas y el carácter de las mismas, ajustándose al procedimiento correspondiente y garantizando la participación de los residentes afectados.

### **Artículo 3. Pago**

La obligación de pago se origina por el aparcamiento de un vehículo en los lugares o vías públicas que estén debidamente señalizadas como zonas de estacionamiento regulado, aunque no medie solicitud por usuario.

La autorización de aparcamiento, para estacionar en el ámbito de estacionamiento regulado, deberá obtenerse mediante el sistema implantado a tal fin; previo pago de la tasa correspondiente, pudiendo conllevar emisión de título habilitante (ticket) o no.

En los casos en que la autorización de aparcamiento conlleve la emisión de título habilitante (ticket), este deberá colocarse en la parte interior de la luna frontal del vehículo de manera que sea fácilmente



legible desde el exterior

Tarifak dagokion zerga-ordenantzan ezarri eta eguneratuko dira.

Las tarifas se determinarán y actualizarán en la correspondiente ordenanza fiscal.

#### 4. artikulua. Funtzionatzeko denboraldiak eta ordutegiak

#### Artículo 4. Períodos y horarios de vigencia

Bi denboraldi bereizten dira:

Se distinguen dos períodos:

a) Udaldia (ekainaren 15etik irailaren 15era, biak barne).

a) Período estival (desde el 15 de junio hasta el 15 de septiembre, ambos inclusive)

b) Urteko osoa.

b) Todo el año

Aparkaldi arautuak ordutegi hauek izango ditu:

El horario que se establece para el funcionamiento del estacionamiento regulado será el siguiente:

#### - UDALDIA:

#### - PERIODO ESTIVAL:

- **Egoiliarrentzat gordetako zonak:** Udalerri osoan egoiliarrentzat gordetako guneak indarrean egongo dira eguneko 24 ordutan eta asteko 7 egunetan indarrean dagoen epean.

- **zonas reservadas a residentes:** estarán activas las Veinticuatro horas del día y los siete días de la semana.

#### - Errotazio handiko zonak:

#### - zonas de alta rotación.

**Errotazio handiko A azpi-zona:** Urte osoan indarrean.

**Sub-zona A de alta rotación:** Activa todo el año.

- ordutegia: 08:00etatik 20:00etara asteleheneretik ostiralera, eta 08:00etatik 13:00etara larunbatetan.

- horario será de 08:00 h a 20:00 h, de lunes a viernes, y de 08:00 h a 13:00 h los sábados.

- A1 azpi-zona: Txomin Agirre Kaia

- Sub-Zona A1: Txomin Agirre Kaia

- A2 azpi-zona: Amaiako Plaza

- Sub-Zona A2: Amaiako Plaza

- A3 azpi-zona: Anbulatorioa

- Sub-Zona A3: Anbulatorioa

**Errotazio handiko B azpi-zona:** Udaldian bakarrik indarrean.

**Sub-zona B de alta rotación:** Activa solo en periodo estival.

- ordutegia: 08:00etatik 20:00etara asteleheneretik ostiralera, eta 08:00etatik 13:00etara larunbatetan B1 azpi-zona eta 08:00etatik 20:00etara B2 azpi-zona.

- horario será de 08:00 h a 20:00 h, de lunes a viernes, y de 08:00 h a 13:00 h los sábados la sub-zona B1 y de 08:00 a 20:00 la Sub.zona B2.

-B1 azpi-zona: Txomin Agirre Kaia

- Sub-Zona B1: Txomin Agirre Kaia

-B2 azpi-zona: Alai

- Sub-Zona B2: Alai

**Errotazio handiko C azpi-zona:** Urte osoan indarrean.

**Sub-zona C de alta rotación:** Activa todo el año.

- ordutegia: 08:00etatik 15:00etara

- horario será de 08:00 h a 15:00 h, de lunes



astelehenetik ostiralera eta 08:00etatik 12:30etara larunbatetan.

-C1 azpi-zona: Azoka

Igandetan, jaiegunetan eta larunbatetan 13:00etatik aurrera, errotazio handiko A1, A2 eta B1 azpi-zonako gunek egonaldi ertaineko gunek bezala arautuko dira, ondorio guztietarako.

Igandetan, jaiegunetan eta larunbatetan 13:00etatik aurrera, errotazio handiko A3 azpi-zonako gunea egoiliar gunea bezala arautuko da, ondorio guztietarako.

Igandetan, jaiegunetan eta larunbatetan 20:00etatik aurrera, errotazio handiko B2 Alai azpi-zonako gunea egoiliar gunea bezala arautuko da, ondorio guztietarako.

Errotazio handiko C azpi-zona ostiraletan 15:00etatik aurrera, larunbatetan 12:30etatik aurrera, igandetan eta jaiegunetan egoiliar gunea bezala arautuko da, ondorio guztietarako.

**- Egonaldi ertaineko zona(OTA gunea):** Udaldian bakarrik indarrean.

- ordutegia: 10:00etatik 21:00etara astelehenetik igandera.

Egonaldi ertaineko ordutegitik kanpo aparkatzea libre izango da.

- 1 azpi-zona: Julio Beobide
- 2 azpi-zona: Itsas-Kiroldegia
- 3 azpi-zona: Axular
- 4 azpi-zona: GKN

**- URTE OSOAN:**

**- Egoiliarrentzat gordetako zonak:**

ARDANTZABIDEko egoiliarrentzat gordetako gunea (1. zona) bakarrik egongo da indarrean.

ARDANTZABIDEko egoiliarra (1. Zona) Udaldirako bakarrik eskatzeko aukera izango dute.

**- Errotazio handiko zonak:**

**Errotazio handiko A azpizona:** Urte osoan indarrean.

- ordutegia: 08:00etatik 20:00etara astelehenetik ostiralera, eta 08:00etatik

a viernes y los sábados de 08:00h a 12:30h  
- Sub-Zona C1: Azoka.

Los domingos, festivos y los sábados a partir de las 13:00 horas las sub-zonas de alta rotación A1, A2 y B1 se regularán como zonas de media estancia para todos los efectos.

Los domingos, festivos y los sábados a partir de las 13:00 horas la sub-zonas de alta rotación A3 se regularán como zonas de residentes a todos los efectos.

Los domingos, festivos y los sábados a partir de las 20:00 horas la sub-zonas de alta rotación B2 Alai se regularán como zonas de residentes a todos los efectos.

La sub-zona C los viernes a partir de las 15:00 horas, los sábados a partir de las 12:30 horas, domingos y festivos se regularán como zonas de residentes todos los efectos.

**- zona de media estancia (zona OTA):** Activa solo en periodo estival.

- horario será de 10:00 h a 21:00 h, de lunes a domingo.

Una vez finalizado el horario de media estancia en la zona el estacionamiento será libre.

- Sub-Zona 1: Julio Beobide
- Sub-Zona 2: Itsas-Kiroldegia
- Sub-Zona 3: Axular
- Sub-Zona 4: GKN

**- TODO DEL AÑO:**

**- zonas reservadas a residentes:** Sólo estará en vigor la zonas reservadas a residentes de ARDANTZABIDE (ZONA 1 )

Los residentes de ARDANTZABIDE (Zona 1) tendrán la posibilidad de solicitar la tarjeta de residentes sólo para el periodo estival.

**- zonas de alta rotación.**

**Sub-zona A de alta rotación:** Activa todo el año.

- horario será de 08:00 h a 20:00 h, de lunes a viernes, y de 08:00 h a 13:00 h los



13:00etara larunbatetan.

sábados.

**Errotazio handiko B azpi-zona:** Ez da indarrean izango.

**Sub-zona B de alta rotación:** No está activa.

**- Egonaldi ertaineko zona.(OTA gunea):**  
Ez da indarrean izango

**- zona de media estancia (Zona OTA):** No está activa.

Denboraldien hasiera eta bukaerako egunak eta zonen ordutegiak aldatu ahal izango dira, ezohiko izaeraz, zerbitzu teknikoek hala proposatuta, Alkateak emandako ebazpen arrazoitu baten bidez.

Las fechas de inicio y fin de los períodos, así como los horarios de las zonas, se podrán modificar con carácter extraordinario mediante Resolución motivada del Alcalde, a propuesta de los servicios técnicos.

### 5. artikulua. Salbuespenak

### Artículo 5. Exclusiones

Ibilgailu hauek ez dituzte ordainduko bide publiko edo zona jakinetan aparkatzeko ordenantza honek araututako tasak:

No estarán sujetos a la tasa regulada en esta Ordenanza, el estacionamiento en las vías o zonas señaladas de los siguientes vehículos:

- a) Motozikletak, ziklomotorrak eta bizikletak, baldin eta araututako aparkaldirako plazak okupatzen ez badituzte eta horrelakoak aparkatzeko egokitutako lekuetan baldin badaude.
- b) Beren kategoriarako edo jarduerarako gordetako zonetan aparkatzeko udal-baimena duten ibilgailuak.
- c) Zamalanak egiteko jarritako leku eta orduetan horrelako lanak egiten ari diren merkataritzako ibilgailuak.
- d) Autotaxi ibilgailuak, gidaria bertan eta zerbitzuan dagoenean.
- e) Hiletetako ibilgailuak, zerbitzuan daudenean.
- f) Larraldietako ibilgailuak: anbulantziak, suhiltzaileak, Gurutze Gorria, DYA eta polizia; horiek guztiak zerbitzuan daudenean.
- g) Barruan gidaria edo bidaiariren bat duen ibilgailu automobila, aparkaldia bost minutu baino gutxiagokoa denean.
- h) Mugikortasun urriko pertsonen jabetzako ibilgailuak edo bereziki egokitutakoak.
- i) Horretarako bereizgarria indarrean duten ibilgailuak.
- j) Zerbitzu publikoei atxikitako ibilgailuak, behar bezala errotulatu eta identifikatuak, zerbitzuan daudenean.

- a) Motocicletas, ciclomotores y bicicletas siempre que no ocupen las plazas señaladas para el estacionamiento regulado y se circunscriban a los lugares que se habiliten para ello.
- b) Los vehículos estacionados en zonas reservadas con autorización municipal para su categoría o actividad.
- c) Los vehículos comerciales que estén realizando labores de carga y descarga en las zonas y horarios asignados para ello.
- d) Los vehículos auto taxi, cuando el conductor esté presente y en servicio.
- e) Los coches funerarios cuando estén de servicio.
- f) Los vehículos de urgencias, ambulancias, bomberos, Cruz Roja, DYA y Policía, todos ellos cuando estén prestando servicio.
- g) Los vehículos automóviles en cuyo interior permanezca el conductor o algún pasajero, siempre que el tiempo de estacionamiento sea inferior a cinco minutos.
- h) Los coches de personas de movilidad reducida o especialmente adaptados.
- i) Los vehículos con distintivo en vigor.
- j) Los vehículos adscritos a los servicios públicos, debidamente rotulados e identificados, cuando efectivamente estén prestando el correspondiente servicio.





## 6. artikulua. Zona-banatzea

Zerbitzua arautzeko, aparkaleku-araubide bereziko ondorengo zonak ezarri dira, eta honakoen arabera arautuko dira:

### 1. Egoiliarrentzat edo Bertakoentzat gordetako zonak:

Soilik dagokion zonan bizi diren pertsonen ibilgailuak aparkatzeko izango dira horrela seinalizatutako gunek, betiere, 7, 8, 9, 10, 11, 12 edo 13. artikuluetan araututako aparkaleku-bereizgarriren bat baldin badute.

Honako zonak hauek definitzen dira (Eranskin modura planoak):

1. zona: **Ardantzabide**
2. zona: **Alde Zaharra-San Jose**
3. zona: **Larretxo**
4. zona: **Arrangoleta**
5. zona: **Zubitxikitik bestalderako auzuneak**

Udaldian 1, 2 eta 4. zonakoek gunek bakar bezala funtzionatutako; ondorioz, uda garaian 1 edo 2. zonako bereizgarria duten ibilgailuek 4. zonan aparkatu ahalko dute, azken zona horretan bizi direnen eskubide berdinekin, eta alderantziz 4. zonako bereizgarria duten ibilgailuek 1. edo 2. zonan aparkatu ahalko dute UDALDIAN.

Udalditik kanpo, 1. zonan bereizgari hori duten ibilgailuek eta 2. zonakoek (Alde Zaharra-San Jose) bakarrik aparkatu ahal izango dute.

3. zonan, udaldian, soilik Larretxon, bizi diren pertsonen ibilgailuak aparkatzeko izango dira horrela seinalizatutako gunek, betiere, ordenantza honetan araututako aparkaleku-bereizgarriren bat baldin badute.

## Artículo 6. Zonificación

En el ámbito de regulación del servicio, se determinan las siguientes zonas de aparcamiento con regulación especial, que se regirán por las siguientes normas:

### 1.- Zonas reservadas a residentes:

En las zonas así señalizadas, el estacionamiento será exclusivo para los vehículos de las personas residentes en la respectiva zona, que estén dotados de uno de los distintivos de aparcamiento regulado en los artículos 7, 8, 9, 10, 11, 12 ó 13.

Se delimitan las siguientes zonas de residentes (Se definen en plano Anexo a la presente ordenanza):

- Zona 1 Ardantzabide**
- Zona 2 Alde Zaharra-San Jose**
- Zona 3 Larretxo**
- Zona 4 Arrangoleta**
- Zona 5 Zubitxikitik bestalderako auzuneak**

Durante el periodo estival las zonas 1,2 y 4 funcionarán como una única zona, por lo que los vehículos con distintivo de la zona 1 y 2 también podrán aparcarse en la zona 4 con los mismos derechos que los residentes de esta última zona y a su vez los vehículos con distintivo de la zona 4 también podrán aparcarse en la zona 1 y 2 en la temporada ESTIVAL.

El resto del año en la zona 1 sólo podrán aparcarse los vehículos con distintivo de esa zona y los de la zona 2 (Alde Zaharra-San Jose).

En la zona 3, Larretxo, el estacionamiento será exclusivo para los vehículos de las personas residentes en dicha zona que estén dotados de uno de los distintivos de aparcamiento regulado en la presente ordenanza, sólo durante el periodo estival.



## 2. Errotazio handiko zonak:

Aparkaldia gehienez 90 minutukoa izango da ibilgailu guztientzat. Denbora hori igaro ondoren 31. artikuluan aurreikusitako neurriak aplikatuko dira.

Ibilgailu guztiek bete beharko dituzte zona horietan aparkatzeko denboraren mugak eta aparkatzeko txartel ateratzeko betebeharra, bai eta ordenantza honetan aurreikusitako bereizgarrien bat duten ibilgailuek ere.

Aparkatzeko txartela **doan** izango da Zumaia ibilgailuen Zirkulazioaren gaineko Zergaren eroldan alta emanda dauden ibilgailu guztientzat eta egoiliarren aparteko bereizgarria lortu dutenentzat (enpresako ibilgailuak)

Gainontzeko ibilgailuentzako aparkatzeko txartela lehenengo 30 minutuetan bakarrik izango da dohain.

Errotazio handiko zonak bi azpizona bereiziko dira (ordenantza honi dagokion eranskinean definitzen dira grafikoki)

Errotazio handiko A azpizona: Urte osoan indarrean.

Errotazio handiko B azpizona: Udaldian indarrean.

Araubide Bereziko Aparkalekuen kokapen zehatza, ezohiko izaeraz, Alkatearen ebazpen arrazoituarekin ezarriko da, zerbitzu teknikoek hala proposatuta.

## 3.- Egonaldi ertaineko zona.(OTA gunea)

- 1 azpi-zona: Julio Beobide
- 2 azpi-zona: Itsas-Kiroldegia
- 3 azpi-zona: Axular
- 4 azpi-zona: GKN

Aparkaldia gehienez 6 ordukoa izango da 1 eta 2 azpi-zonetan eta 1h 3 eta 4 azpi-

## 2.-Zonas de alta rotación:

El estacionamiento estará limitado a un máximo de 90 minutos para todos los vehículos. Transcurrido dicho período se aplicarán las medidas previstas en el artículo 31.

La limitación temporal y la obligatoriedad de obtener de título habilitante (ticket) o para aparcar en estas zonas se extiende a todos los vehículos, incluyendo los que posean algún tipo de distintivo previsto en la presente ordenanza.

La obtención de título habilitante (ticket) **será gratuito** para los vehículos dados de alta en el padrón del Impuesto de Vehículos de Tracción Mecánica de Zumaia así como los que hayan obtenido el distintivo especial de residente (coche de empresa).

Para el resto de vehículos la obtención de título habilitante (ticket) será gratuito exclusivamente los 30 minutos iniciales.

Dentro de las zonas de alta rotación se definen dos sub-zonas (definidas gráficamente en el plano Anexo a la presente ordenanza).

Sub-zona A de alta rotación: vigencia todo el año.

Sub-zona B de alta rotación: vigencia periodo estival.

La localización o ubicación concreta de las Zonas de Aparcamiento con Regulación Especial se establecerá, con carácter extraordinario, mediante Resolución motivada del Alcalde a propuesta de los servicios técnicos.

## 3.- Zonas de aparcamiento de Media estancia.(Zona OTA)

- Sub-Zona 1: Julio Beobide
- Sub-Zona 2: Itsas-Kiroldegia
- Sub-Zona 3: Axular
- Sub-Zona 4: GKN

El estacionamiento estará limitado a un máximo de 6 horas para todos los



zonatan ibilgailu guztientzat. Denbora hori igaro ondoren 31. artikuluan aurreikusitako neurriak aplikatuko dira.

Ibilgailuek zerga-ordenantzetan araututako prezioa ordaindu ondoren aparkatu ahal izango dute.

Ibilgailu guztiek bete beharko dituzte zona horietan aparkatzeko denboraren mugak eta aparkatzeko txartela ateratzeko betebeharra, bai eta ordenantza honetan aurreikusitako bereizgarrien bat duten ibilgailuek ere. Aparkatzeko txartela lehenengo sei orduetan doan izango da Zumaia ibilgailuen Zirkulazioaren gaineko Zergaren eroldan alta emanda dauden ibilgailu guztientzat.

Egonaldi ertaineko ordutegitik kanpo aparkatzea libre izango da.

#### **4. Mugikortasun urriko pertsonentzako guneak**

Ezinduentzako Europako Aparkatzeko Txartela duten ibilgailuek bakarrik aparka dezakete. Plazak bertikalean eta horizontalean seinaleztatuko dira, behar bezala.

Plaza hauek beteta dauden kasuetan ibilgailu hauek egoiliar edo bertakoen aparkalekuetan aparkatzeko aukera izango dute, dagokion egoiliar edo bertakoen txartela izan gabe.

#### **5.- Zamalanak egiteko guneak.**

Leku hauek Zumaia merkataritza-jarduerei zerbitzua ematen dieten ibilgailuentzat gordeta daude, igande eta jaiegunetan izan ezik, 08:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 20:00etara, eta larunbatetan 08:00etatik 13:00etara.

Zerbitzu profesionalen zamalanetarako gordeta ez dauden denbora-tarteetan hurbilen dagoen egoiliarren zonan bizi

vehículos en las Sub-zonas 1 y 2 y a 11h en las subzonas 3 y 4. Transcurrido dicho período se aplicarán las medidas previstas en el artículo 31.

Los vehículos podrán aparcar realizando el pago regulado en la ordenanza fiscal.

La limitación temporal y la obligatoriedad de obtener de título habilitante (ticket) o para aparcar en estas zonas se extiende a todos los vehículos, incluyendo los que posean algún tipo de distintivo previsto en la presente ordenanza. La obtención de título habilitante (ticket) será gratuito las primeras seis horas para los vehículos dados de alta en el padrón del Impuesto de Vehículos de Tracción Mecánica de Zumaia.

Una vez finalizado el horario de media estancia en la zona el estacionamiento será libre.

#### **4.- Zona reservada a personas con movilidad reducida**

Estacionamiento exclusivo para vehículos identificados mediante Tarjeta Europea de Estacionamiento para Personas con discapacidad. Las plazas se señalarán vertical y horizontalmente de forma adecuada.

En el caso de que las plazas reservadas para personas con discapacidad estén ocupadas estos vehículos podrán aparcar en zona reservada a residentes sin la necesidad de distintivo que los autorice.

#### **5.-Zona de carga y descarga**

Espacio reservado para vehículos destinados a dar servicio a las actividades comerciales de Zumaia, excepto domingos y festivos, desde las 8:00 horas hasta las 13:00 y desde las 15:00 horas hasta las 20:00 horas, y los sábados desde las 8:00 hasta las 13:00.

Durante el tiempo no reservado a carga y descarga de servicios profesionales podrán estacionar en esta zona los



direnek gune hauetan aparkatu ahal izango dute.

residentes autorizados de la zona de residentes más cercana.

**7. artikulua. Egoiliarren bereizgarria (Bertakoak)**

Oro har, etxebizitza bakoitzeko emango den egoiliar-txartel gehiengoa etxebizitza horretan gidatzeko baimena duten pertsonen kopurua izango dira. Hala ere, Udalak mugikortasun urria edo bestelako arazo bereziak direla-eta egoiliarrentzat aparteko bereizgarriak eman ditzake.

Bereizgarriaren balioa urtebetekoa izango da, eta hori duten ibilgailuek baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Ibilgailuaren titularra Zumaian erroldatutako pertsona fisikoa izatea eta egoiliarrei dagokion zonan sartutako etxean bizitzea benetan edo izatez. Probintziako Trafiko Buruzagitzak emandako zirkulazioko baimenean agertzen den pertsona hartuko da ibilgailuaren jabetzat. Bananduen kasuan, baldintza hau betetzea Udalak baloratuko du.

b) Ibilgailua Zumaia Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren erroldan alta emanda egotea eta aurreko ataletan adierazitako titulartasuna eta helbidea bat etortzea. Gainera, zerga hori ordainduta eduki beharko da.

c) Zumaia Udalak jarritako trafiko isunik izanez gero, hori ordainduta izatea.

d) Dagokion zerga ordenantzan egoiliarrentzako bereizgarria lortzeko jarritako tarifa ordaintzea.

e) Ibilgailuaren pisua gehienez 3.500 kilokoa.

**Artículo 7. Distintivo de residente**

Sin perjuicio del otorgamiento de los distintivos especiales de residente por razón de movilidad reducida u otra circunstancia excepcional apreciada por el Ayuntamiento, con carácter general, el número máximo de viñetas por domicilio será igual al número de personas con carnet de conducir empadronadas en ese domicilio.

La validez del distintivo será anual para los vehículos que cumplan los siguientes requisitos:

a) Persona física titular del vehículo, según conste en el permiso de circulación expedido por la Jefatura Provincial de Tráfico, empadronado en Zumaia y con residencia efectiva o de hecho en alguno de los domicilios que comprenden la zona de residentes. En caso de separaciones el Ayuntamiento valorará la exigencia de este requisito.

b) El vehículo deberá estar dado de alta en el padrón del Impuesto de Vehículos de Tracción Mecánica de Zumaia y estar al corriente del pago del impuesto. El domicilio del vehículo deberá coincidir con el de la residencia del apartado a).

c) Estar, en su caso, al corriente en el pago de sanciones de tráfico impuestas por el Ayuntamiento de Zumaia.

d) Abonar la tarifa para la obtención del distintivo de residente establecida en la ordenanza fiscal.

e) Tratarse de un vehículo con peso máximo de 3,500 kg.



**8. artikulua. Egoiliarren aparteko bereizgarria**

Egoiliarren aparteko bereizgarria lortu ahal izango dute ohiko bizilekua Zumaian izanik, bertan errolatuta egon eta ibilgailua errentamendu finantzarioan (leasing edo renting) duten pertsona fisikoek. Hori lortzeko, ondorengo baldintzak guztiak ezinbestez bete beharko dira:

- a) Gidabaimena indarrean izatea.
- b) Ohiko helbidea Udal-Eroldan eta gidabaimenean azaltzen den bera izatea, eta, benetan, egoiliarrentzat gordetako zonaren barruan inskribatutako etxebizitzan bizitzea.
- c) Ibilgailuaren pisua gehienez 3.500 kilokoa
- d) Ibilgailuaren aseguruan ohiko gidari bezala azaltzea.
- e) Udalak jarritako trafiko isunik izanez gero, hori ordainduta izatea. Arau hau etxebizitza bereko ibilgailuei aplikatuko zaie.
- f) Dagokion zerga ordenantzan egoiliarrentzako bereizgarria lortzeko jarritako tarifa ordaintzea.
- g) Leasing edo renting-aren kontratu originala eta ibilgailuaren aseguru-poliza aurkeztu beharko dira, baita agiri horien fotokopiak ere.

Talde horretan egongo dira enpresaren ibilgailua erabiltzen duten gidariak. Kasu horretan g) eta d) letrako betebeharraren ordean honako hau aurkeztuko da: eskatzailearen eta ibilgailuaren enpresa titularraren arteko lan-harremana frogatzeko agiria. Justifikatu beharko da enpresak baimena eman diola pertsona horri ibilgailua berak eskusiboki erabiltzeko, bai lanorduetan bai lanorduetatik kanpo.

**9. artikulua. Jarduera ekonomikoekin lotutako ibilgailuen aparteko bereizgarria**

Jarduera ekonomikoekin lotutako ibilgailuei aparteko bereizgarria eman ahal izango zaie baldintza hauek betetzen

**Artículo 8. Distintivo especial de residente**

Podrán obtener también la tarjeta de residente aquellas personas físicas con residencia habitual y empadronadas en Zumaia que dispongan de un vehículo, en régimen de arrendamiento financiero (leasing o renting), siempre que reúna, de forma conjunta e inexcusable, los siguientes requisitos:

- a) Disponer de permiso de conducir en vigor.
- b) Que el domicilio habitual, el que consta en el Padrón Municipal y en el permiso de conducir, sea el mismo y que de hecho resida en el domicilio inscrito dentro de zona reservada para residentes.
- c) Tratarse de un vehículo con peso máximo de 3,500 kg
- d) Figurar como conductor habitual en el seguro del vehículo
- e) Estar al corriente en el pago de las sanciones de tráfico impuestas por el Ayuntamiento si las tuviera. Este precepto se aplicará a vehículos de un mismo domicilio.
- f) Abonar la tarifa establecida para el distintivo de residente en la Ordenanza Fiscal correspondiente.
- g) Se deberá presentar contrato original de leasing o renting y póliza de seguro del vehículo, así como fotocopias de dichos documentos.

Se incluirán en este grupo los conductores que dispongan de un coche de empresa a su servicio. En dicho supuesto, el requisito recogido en la letra g) y d) será sustituida por aportación de documentación que acredite la relación laboral entre solicitante y empresa titular del vehículo. Se deberá justificar que la persona está autorizada por la empresa para hacer uso del vehículo en exclusiva, tanto dentro como fuera del horario de trabajo.

**Artículo 9. Distintivo especial por actividad económica**

Se podrá conceder distintivo especial por actividad económica a toda entidad jurídica o física—que cumpla los siguientes



dituzten entitate juridiko edo fisikoei:

a) Ibilgailuaren titularra pertsona juridiko edo fisikoa izatea eta gainera, enpresa edo jarduera horrek jardueraren aurrekomunikazioa eginda eduki behar du dagokion udalean, edo establezimendua irekitzeko lizentzia eduki behar du, edo jarduera legezatzatze-prozesuan dagoela justifikatu behar du.

b) Ibilgailua Ibilgailuen Zirkulazioaren gaineko Zergaren eroldan alta emanda egotea eta aurreko ataletan adierazitako titulartasuna eta helbidea bat etortzea. Gainera, zerga hori ordainduta eduki beharko da.

c) Probintziako Trafiko Buruzagitzak emandako zirkulazioko baimenean agertzen den pertsona hartuko da ibilgailuaren jabetzat.

d) Jardueraren izaera berezia dela eta, ibilgailua etengabe erabili behar izatea. Ibilgailuaren beharra justifikatu egin beharko da. Udalaren esku egongo da aparteko bereizgarria emateko erabakia. Behar bezala erregistratutako profesional taldeek (gremioek), aparteko kasuetan, beren jarduerarako ibilgailuaren beharra badute, bereizgarri horrek eskubidea emango die egoiliarren zonetan aparkatzeko, 20:00ak arte.

Aparteko kasuetarako bereizgarriak, ordea, ez du eskubiderik ematen jaiegun eta larunbatetan eguerdiko 13:00etatik aurrera beren zonatik kanpo aparkatzeko. Aparteko kasuetan soilik eman ahalko du organo eskudunak ordutegi horretatik kanpo aparkatzeko baimena.

Justifikatutzat ematen da, eta beraz ez da beharrezkoa idatzizko justifikazioa eskatzea eskatzailearen jarduera honako alorrei lotuta baldin badago:

- Igeltserotza.
- Elektrizitatea.
- Pintura
- Iturgintza.
- Higiezin kudeaketa.
- Aroztegia.
- Loteria saltzailea.

requisitos:

a) Ser el titular del vehículo una persona jurídica o física cuya empresa o actividad haya efectuado en el Ayuntamiento correspondiente la comunicación previa de ejercicio de la actividad o disponga de licencia de apertura del establecimiento o justificación de que la actividad está en proceso de legalización.

b) Estar dado de alta el vehículo en el Padrón del Impuesto de Circulación con coincidencia de la titularidad y domicilio definidos en los apartados anteriores, estando, en su caso, al corriente del pago de dicho impuesto.

c) A estos efectos, se considerará propietario del vehículo a quien conste como tal en el permiso de circulación expedido por la Jefatura Provincial de Tráfico.

d) Debido a las características específicas de su actividad necesitar el uso continuado del vehículo. Se deberá justificar la necesidad del vehículo. La decisión de la concesión del distintivo especial quedará a criterio del Ayuntamiento.

En casos excepcionales de necesidad del vehículo para la actividad del colectivo de profesionales (gremios) debidamente registrados este distintivo dará derecho a aparcar en las zonas de residentes hasta las 20:00.

Los distintivos de estos casos excepcionales, no otorgan derecho a aparcar fuera de su zona los días festivos ni los sábados a partir de las 13:00 horas. Sólo en casos excepcionales podrá el órgano competente autorizar permisos fuera de dicho horario.

Se entiende por justificado y por lo tanto no será necesario la justificación si la actividad corresponde a los siguientes sectores:

- albañilería.
- electricidad.
- Pintura
- Fontanería
- Sector inmobiliario (inmobiliaria)
- Carpintería.



- Altzairu banaketa.
- Lorezaintza.
- Etxeko-tresnen konponketa.
- Igogailuen mantenua
- Etxeen garbiketa zerbitzua.
- Medikuntza zerbitzuak.
- Janarien banaketak.
- Etxeetan banaketa zerbitzuak.

- Adm. Lotería.
- Carpintería (Reparto muebles)
- Jardinería.
- Reparación de electrodomésticos.
- Mantenimiento de ascensores.
- Servicio de Limpieza a domicilio.
- Servicios médicos.
- Reparto de comidas.
- Repartos a domicilio.

e) Udalak jarritako trafiko-isunik izanez gero, hori ordaindua izatea. Arau hau entitate juridiko edo fisiko bereko ibilgailuei aplikatuko zaie.

e) Estar al corriente en el pago de sanciones de tráfico impuestas por el Ayuntamiento si las tuviera. Este precepto se aplicará a vehículos de una misma entidad jurídica ó física.

f) Jarduera ekonomikoentzat aparteko bereizgarria lortzeko, dagokion zerga ordenantzan jarritako tarifa ordaintzea.

f) Abonar la tarifa establecida para el distintivo por actividad económica en la Ordenanza Fiscal correspondiente.

Puntualki Udalerria lanera etortzen diren gremioek eta Jardueraren izaera berezia dela eta bertako edo egoiliar guneetan aparkatu behar badute aparkatzeko aukera izango dute dagokion txartela aterata. Txartel hauek errotazio handiko eta egonaldi ertaineko guneak kudeatzeko jarriko diren makinetan lortu ahal izango dira, dagokion tasa ordaindu eta gero. Ibilgailuak profesionala izan beharko du eta errotulatu joan beharra du.

Para dar respuesta a la necesidad del vehículo para la actividad del colectivo de profesionales (gremios) que acudan puntualmente a trabajar la localidad y necesiten aparcar en zona de residentes, tendrán la posibilidad de obtener título habilitante previo pago de la tasa correspondiente, pudiendo conllevar emisión de título habilitante (ticket) o no, en los expendedores que se colocarán para regular tanto las zonas de alta rotación como de media estancia. El vehículo deberá ser profesional e ir ir rotulado

#### **10. artikulua. Mugikortasun urriko pertsonen gidatutako ibilgailuen bereizgarria**

#### **Artículo 10. Distintivos de vehículos conducidos por personas con movilidad reducida.**

Ezinduentzako Europako Aparkatzeko Txartelaren jabe diren mugikortasun urriko pertsonen ibilgailuei, horien titularrek egoiliar zonako etxebizitzaren batean erroldatuta badaude, aparteko araubide hau aplikatuko zaie:

A los vehículos conducidos por personas de movilidad reducida que sean poseedoras de la Tarjeta Europea de Estacionamiento para Personas con Discapacidad en vigor, y cuyo persona titular esté empadronada en alguna de las viviendas que comprenden la zona de residentes se les aplicará el siguiente régimen excepcional:

a) Araudi honetako 7. artikuluko a), b) eta c) ataletan jasotako baldintzak bete beharko dituzte.

a) Habrán de cumplir los requisitos establecidos en las letras a), b) y c) del artículo 7 de la presente normativa.



b) Mugikortasun urriko pertsonentzako bereizgarria eskuratu ahal izango dute, eta ibilgailuaren aurreko kristalaren barruko aldean itsatsi beharko dute, kanpotik erraz irakurtzeko moduan.

c) Bereizgarri horren titularrek egoiliar zonan aparkatu ahal izango dute – mugikortasun urriko pertsonentzako gorde gabeko plazak– egoiliarrentzat ezarritako baldintza berdinetan. Errotazio handiko eremuetan ez da eskubide hori aplikatuko.

### **11. artikulua. Bigarren etxebizitzako bereizgarria**

Zumaiara erroldatuta ez dauden pertsonak eta etxebizitza baten jabe izanik beren etxebizitza (jabetzakoa edo alokatua) aparkaleku-zerbitzu arautua duen ingururen batean badute, zona arautuan aparkatzeko baimena emango dien bereizgarria lortu ahal izango dute.

Gehienez bi bereizgarri ahal izango dira etxebizitzako.

Bereizgarri hori lortu nahi duten pertsonak baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Errolda ziurtagiria.
  - b) Araututako zonaren mugapean inskribatuta dagoen etxebizitza baten jabe edo errentari izatea. Etxebizitza jabearen ezkontideek eta lehen graduko odol-ahaideek (seme-alaba edo gurasoek) ere aukera izango dute.
  - c) Ibilgailuaren jabe izatea. Probintziako Trafiko Buruzagitzak emandako zirkulazioko baimenean agertzen den pertsona hartuko da ibilgailuaren jabetzat.
  - d) Udalak jarritako trafiko isunik izanez gero, hori ordainduta izatea.
  - e) Udaldiko bereizgarria lortzeko dagokion Zerga ordenantzan jarritako tarifa ordaintzea.
- Ez zaie udaldirako aparkatzeko bereizgarririk emango, egoiliar zonan aparkatzeko baimena duten ibilgailuen

b) Podrán proveerse del distintivo de aparcamiento para personas de movilidad reducida, que deberá ser colocado en el interior de la luna frontal del vehículo de forma que sea fácilmente legible desde el exterior.

c) Las personas titulares de este distintivo podrán estacionar en la zona de residentes –plazas no reservadas a personas con movilidad reducida–, en las condiciones establecidas para los residentes. En los ámbitos de alta rotación no será de aplicación ese derecho.

### **Artículo 11. Distintivo de segunda residencia**

Aquellas personas no empadronadas en Zumaia y dispongan de vivienda propia o en alquiler en alguna área del municipio sujeto al servicio de estacionamiento regulado, podrán obtener un distintivo de aparcamiento que les permitirá estacionar en la zona de residentes correspondiente.

se podrán obtener como máximo dos distintivos por residencia.

Las personas interesadas en la concesión del distintivo deberán cumplir los siguientes requisitos:

- a) Certificado de empadronamiento.
- b) Ser propietario o arrendatario de un domicilio inscrito dentro de la delimitación de zona de estacionamiento regulado. También tendrán la posibilidad de solicitarlo el conyugue y los familiares directos de primer grado de consanguinidad del propietario (madre, padre e hij@s).
- c) Ser propietario del vehículo. A estos efectos, se considerará propietario del vehículo a quien conste como tal en el permiso de circulación expedido por la Jefatura Provincial de Tráfico.
- d) Estar al corriente en el pago de sanciones de tráfico impuestas por el Ayuntamiento si las tuviera.
- e) Abonar la tarifa establecida para el distintivo de temporada estival en la Ordenanza Fiscal correspondiente.





titularrekin batera herriko etxebizitzetan udaldia pasatzen duten pertsonen.  
Eskaera etxebizitzaren jabeak edo bere ezkontideak egin beharko du.

No se concederá distintivo de aparcamiento para el período estival a aquellas personas que permanezcan durante ese período en domicilios de la villa donde convivan titulares de vehículos autorizados para estacionar en zona de residentes.

La solicitud deberá ser realizada por el titular de la vivienda o su consorte.

## **12. artikulua. Egoiliar ez diren langile eta autonomoen aparteko bereizgarria.**

Zumaian errolatuta ez daudenek baina bertan lan egiten dutenek uda partean aparkatzeko bereizgarria eskatzeko aukera izango dute.

Bereizgarria indarrean egongo da langilearen kontratuak dirauen bitartean, astelehenetik ostiralera edo astelehenetik igandera, kontratu horren baldintzen arabera.

Bereizgarria eskuratu nahi duten pertsonen baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Indarrean duten lan kontratua aurkeztea. Autonomoen kasuan, berriz, Zumaian Jarduera Ekonomikoen Gaineko Zergan alta emanda izatea eta zehaztutako zonaren barruan jarduteko lokal edo etxe bat alokatuta edo jabetzan izatea.
- b) Ibilgailuaren jabea izatea. Probintziako Trafiko Buruzagitzak emandako zirkulazioko baimenean agertzen den pertsona hartuko da ibilgailuaren jabetzat edo bere ezkontidea.
- c) Udalak jarritako trafiko isunik izanez gero, hori ordainduta izatea.
- d) Dagokion Zerga ordenantzan bereizgarria lortzeko jarritako tarifa ordaintzea.
- e) Eskaera urtero berritu beharko da.

